

**SAN TELMO GAZTELURA BISITA
VISITA AL CASTILLO DE SAN TELMO**

2023-01-25 Hondarribia 25-01-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Alkate jauna, herri agintari zareten Udalbatza osatzen duzuen zinegotziok guztiok, sailburua jaun-andreok egun on!

Gaur San Telmo Gaztelua zabaltzen dugu. Hau, gotorlekua zen, itxita zegoen, eta hala ezagutu dugu euskaldunok eta guregana etortzen diren bisitariek.

Gaztelu hau kultura ondarea deklaratu zuen Eusko Jaurlaritzak, baina jabego pribatua zuen. Hondarribiako Udalak, eremu pribatua izandako leku hau ondare publiko bihurtu du. Guztiona. Guztiontzat. Horregatik Hondarribiako alkateari eta udalari eskerrak eman nahi dizkiegu, aurrenik.

Siempre es motivo de felicitación que un pueblo, un ayuntamiento, apueste decididamente por su patrimonio cultural. Es importante recalcar, y aplaudir, que la decisión de incorporar San Telmo al espacio público se haya tomado por unanimidad de todos los grupos municipales del Ayuntamiento de Hondarribia. El acuerdo es el mejor camino para encarar nuestro pasado y, también, nuestro futuro.

El castillo de San Telmo ha sido durante siglos un lugar cerrado a la ciudadanía. Ahora podemos entrar, podemos conocerlo y, así, conocer mejor nuestra historia. Las instituciones vascas tenemos claro que el mejor modo de conservar el patrimonio cultural es compartirlo: cuidarlo, admirarlo y disfrutarlo entre todas y todos.

El patrimonio cultural nos une. Es un elemento clave para la cohesión de una comunidad. Nos conecta, también, con nuestro pasado. Desde el fuerte de San Telmo contemplamos y entendemos mejor siglos de historia de Hondarribia, el cabo de Higer, Amuitz, la Bahía de Txingudi, Bidasoa... nuestro País.

Kultura ondarea zaintzeak iraganarekiko jakinmina eta maitasuna adierazten du. Baita ere, etorkizunerako ardura.

Ondarea ez da harri zaharren kontu bat. Ondareztat ditugun harri zahar horiek gure etorkizunaren oinarriak dira. Belaunaldiz belaunaldi eta mendez mende transmititu den ondarean sustraitu behar dugu gure oraina eta gure etorkizuna.

Sustraitu, ez iraganean kateaturik geratzeko, baizik eta loratzeko, hazteko eta, horrenbestez, bizirik jarraitzeko.

Este castillo fue un espacio para expeler atrocidades y piraterías, para defensa. Un fuerte. Un lugar de vigilancia, para defenderse de las amenazas que pudieran llegar desde el mar. Ahí están sus escudos reales, sus murallas, sus defensas. Ahora es un lugar abierto. Un espacio de paz, de conocimiento y cultura. Un espacio abierto al mar y al mundo.

Hemendik itsaso zabala ikusten da, euskal kostalde osoa antzematen da, Baionatik Bilbora. Euskal Herriari mugaz gainetik begiratzera gonbidatzen gaituen lekua da San Telmo gaztelua.

Paraje eder hau ezagutzeko aukera ematen diguzue. Eskerrik asko.

Aukera hau baliatu nahi dut herri-ondarea herritarren eskura jartzeko ahaleginari eutsiko diogula berresteko. Hondarribian egin duzuen bezala, barne adostasuna bilatuz.

Hemen egin duzuen bezala, guda eremuak bake leku bihurtzen ahaleginduko gara. Kulturari eta kultura ondareari dagokien garrantzia ematen jarraituko dugu. Kulturaren beharrea sinisten dugulako.

Kultura-ondare den San Telmo Gaztelu honetatik itsasoari begiratzen diogu. Izan ere, kulturatik begiratzen dio herri batek bere etorkizunari.

Zorionak guztioi eta aldi berean eta eskerrik asko!